

FAQ

Sarritan egiten diren galderei emandako erantzunak, baliagarria den bestelako informazioa eta erabiltzeko aholkuak.

Zer da eLiburutegia?

Interneten bidez liburu elektronikoak mailegatzeko zerbitzua da, Eusko Jaurlaritzak sortu, mantendu eta herritarren esku jartzen duena.

Nola funtzionatzen du?

Gaztelaniazko, euskarazko eta beste hizkuntza batzuetako liburu elektronikoen bilduma zabala sortu du, eta egunean-egunean gaurkotuz doa. Bi modutan erabili ahal da: batetik, streaming bidez eta bestetik edozein motatako nabigatzaile edo sistema eragileren bitartez irakurketa digitaleko gailura deskargatuta.

Nola erabili ahal dut eLiburutegia?

Liburutegiko bazkide bazara, sar zaitez www.euskadi.net/eliburutegia webgunera, aukeratu mailegatu nahi duzun izenburua eta liburutegiko beste zerbitzuetara sartzeko erabiltzen dituzun datu berdinak (bazkide zenbakia (letrarik gabe) eta pasahitza) sartzearekin nahikoa da

Oraindik ere erabiltzailea ez bazara eska ezazu zure [txartela](#) liburutegian eta plataforman zuzen eta doan sartzeko beharrezko datuak emango dizkizute.

Zer egin behar dut sartzeko datuak ahazten baditut edo errorea gertatzen bada?

Liburutegira joan behar duzu.

Zeintzuk dira mailegua egiteko baldintzak?

Gehienez hiru liburu izan ahal dituzu maileguan aldi berean. Maileguaren iraupena 21 egunekoa da (mailegu iraungi baino bost egun lehenago, horren berri emango dizun mezu elektronikoa jasoko duzu). Mailegutako liburu elektronikoa eskuragarri egon daiteke aldi berean 6 gailutan eta 6 ordenagailutan.

Zer gertatzen da zerbitzuak bidalitako mezu elektronikoak jasotzen ez baditut?

Egiaztatu "mezu baztergarriak" izeneko karpetan ezer dagoen eta postontziaren iragazketaren konfigurazioa zein den. Gerta liteke postontziak baztergarritzat jotzea plataformak bidalitako oharrak. Dena den, postontzian oharrak ez badago, hurbildu zaitez liburutegira harremanetarako posta elektronikoaren helbidea zuzena den egiaztatzeko.

Zeintzuk dira erabiltzeko arauak?

Eliburutegia-ra sartzekak eta bertoko edukiak baliatzekak erabiltzaile bihurtzen zaituzte, eta horrek [erabilerara arauak](#) erabat onartzea dakar.

Bada alderik liburu elektronikoak streaming bidez edo gailu batean deskargatuta irakurtzeko orduan?

Ez, bi modu horietan irakurri ahal dira liburu elektronikoak, eta horrek ez du ezberdintasunik ezartzen maileguen kopuruari begira.

Badago maileguak iraungitze-data baino lehenago eteteko aukerarik?

Ez, maileguak iraungi baino lehenago itzultzeko aukera ez dago aktibatuta.

Badago liburu elektronikoaren mailegia berriztatzerik?

Ez, mailegatutako lan bat irakurtzen jarraitu nahi baduzu eskaera ostera ere bideratu beharko duzu.

Zer gertatzen da mailegatu nahi dudana eskura eduki eta maileguan hartu ahal den gehieneko liburuaren kopurua gaindituta badaukat?

Erreserba horren zain dagoen hurrengo irakurleari esleituko zaio automatikoki eta horrelakoetan ez duzu oharririk jasoko.

Nola irakurri ahal ditut maileguan eskatutako liburu elektronikoak?

Maileguan eskatutako liburu elektronikoak irakurtzeko Adobe Digital Editions programa instalatuta eduki behar duzu. [Epub laguntza](#) atalean informazio xehatua topatuko duzu instalazioa egiteko, Adobe-ren ID-a lortzeko eta liburu elektronikoak irakurgailuetara deskargatzeko.

Zer egin behar dut liburu elektronikoak irakurtzeko programak nire gailuak atzematen ez badu?

Gerta liteke jarraian aipatzen diren arrazoietakoa bat dela medio, Adobe Digital Editions programak zure gailua ez atzematea:

- zure gailua ez da bateragarria Adobe DRM sistemarekin. Gailuaren fabrikatzaileak emandako dokumentaziora edo [Adoberen webgunera](#) jo eta egiaztatu horrela den. Amazonen Kindle gailuak, kasu, ez dira bateragarriak Adobe DRM sistemarekin
- zure gailua bateragarria da Adobe DRM delakoarekin, baina ez dago gaituta Adobe Digital Editions erabiltzeko. Hainbat fabrikatzailek aukerako programak edo metodoak eskaintzen dituzte haiek ekoiztutako zenbait modelotarako: adibiderako Sonyren "Reader" programa PRS-T1 modelorako
- zure gailua bateragarria da Adobe DRMrekin eta Adobe Digital Editions programarekin, baina ez da behar bezala konektatu ordenagailu pertsonalarekin. Horrela gertatu bada, egin kasu gailuaren fabrikatzaileak emandako jarraibideei behar den moduan konektatu ahal izateko.

Software librea erabil dezaket?

Adoberen webgunean [Mac eta Windowserako bertsioak](#) jaisteko aukera baino ez daukagu. Software librea erabili nahi baduzu [Wine](#) berrezarpena jo behar duzu: Wine-ri esker Windowserako diren programak Linux sisteman exekutatu ahal izango dituzu.

Lotura honetan jasoko duzu beharrezkoa den [laguntza](#). Hala ere, izan gogoan Windowserako prestatutako Adobe programa bat Linuxen instalatzen ari zarela, eta eLiburutegiak ez du bere gain inongo erantzukizunik hartzen sor daitezkeen intzidentzia edo errorearen aurrean.

Behin liburu elektronikoa bat gailura deskargatuta, zer egin behar dut liburu hori topatzen ez badut?

Eliburutegiko liburu bat deskargatutakoan, sistemak fitxategi bat sortuko du eta berori Adobe Digital Editions programak berehala irekiko du fitxategia; gerta liteke, ordea, automatikoki ez zabaltzea, zure nabigatzailearen eta sistemaren konfigurazioa dela eta. Agian fitxategia nabigatzailean ezarrita daukazu deskargen karpeta gorde da.

Halakoetan jokatu horrela:

- fitxategia deskargatu baino lehen, sakatu “Gorde honela” aukera, eta ez “Ireki” delakoa. Horrela eginda, fitxategia gordetzeko kokagunea hautatu ahal duzu. Gero, horra joanda, egin klik bikoitza fitxategian
- deskarga eginda badago, jo zure nabigatzailean ezarrita daukazu deskargen karpeta eta sakatu bitan fitxategia edo eraman ezazu gustukoago duzun beste kokagune batera. Han zaudela, egin klik bikoitza fitxategian.

Zer egin dezaket deskargatutako liburu elektronikoa irekitzean errore-mezua agertzen bada?

Eliburutegiko liburu bat deskargatutakoan, sistemak fitxategi bat sortuko du eta berori Adobe Digital Editions programarekin ireki behar dugu. Normalean, Adobe Digital Editions programak berehala irekiko du fitxategia; baina inoiz errore-mezua agertu ahal da. Mezu horrek adierazten digu ezinezkoa dela fitxategia irekitzea onartu gabeko fitxategi-mota bat delako edo kaltetuta dagoelako. Horrelakoa gertatu ohi dira Windowsek fitxategi horiek Adobe Reader programarekin irakurtzekoak direla interpretatzen duelako eta programa hori erabiliz irekitzen saiatzen ari delako, Adobe Digital Editions erabili beharrean.

Badago intzidentzia hori betiko konpontzerik: fitxategi-mota horiek irekitzeko aplikazioa lehenetsi behar dugu. Egin horrela:

- egin klik fitxategian saguaren eskuineko botoia sakatuz
- sakatu “Propietateak” aukera
- “Orokorra” izeneko erlaitzean sakatu “Aldatu” botoia, “Honekin irekitzen da” delakoaren ondoan ageri dena
- hautatu “Adobe Digital Editions” edo adierazi Windowsi “Arakatu” botoiaren bidez zure ekipoko zein karpeta dagoen instalatuta aipatutako programa.

Beste aukera bat, behin behinekoa bada ere, hau da:

- abiarazi Adobe Digital Editions programa
- bila ezazu deskargatu duzun fitxategia eta eraman ezazu Adobe Digital Editions programara.

e_Liburutegia: liburu elektronikoen mailegua

Gailu bera erabilia, badute hainbat pertsonak zerbitzua erabiltzerik?

Adobe Digital Editions programa kontu zehatz bati lotuta deskargatu eta erabili ohi da. Hortaz, beste kontu batekin lan egiteko aholkua da gailua askatzea eta ostera ere programa deskargatzea.

Mailegu-zerbitzu berri honen gaineko edozelako zalantzak argitzeko jarri harremanetan zure liburutegiarekin.